

ÜRTE KO MEMO RIA

URAREN EUSKAL AGENTZIA



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO





Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Argitalpena 2019ko irailean.

Argitaratzailea: UR-Uraren Euskal Agentzia

Irudiak: <https://argazki.irekia.euskadi.eus/es/search/65791>

2018.
URTE
KO
MEMO
RIA

URAREN EUSKAL AGENTZIA

01

Agurra / 7

02

Aurkezpena / 9

03

Gobernu, kudeaketa eta
aholkularitza organoak / 10

3.1. KUDEAKETA ORGANOAK / 13

3.1.1 Eremuko zuzendaritzak / 13

3.1.2 Arroen Bulegoak / 13

04

Administrazioa eta zerbitzuak / 15

4.1. LANGILEAK / 15

4.2. URAREN AURREKONTUAK / 15

4.2.1 Ustiapen-aurrekontua / 15

4.2.2 Kapitalaren aurrekontua / 15

4.3. BERDINTASUN PLANA / 16

4.4. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIORAKO PLANA / 16

05

Jabari publikoaren kudeaketa / 18

- 5.1. HOBETZEKO JARDUKETAK / 18
- 5.2. LAN-BAIMENAK ETA EMAKIDAK / 19
 - 5.2.1 Lan-baimenak Ur-Jabari Publikoan eta zaintza-aldean / 19
 - 5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan / 20
 - 5.2.3 Ur Jabari Publikoa okupatzeagatik kanona / 21
- 5.3. ISURKETEN ARLOA / 21
 - 5.3.1 Isurketa-baimenak / 21
 - 5.3.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua / 22
 - 5.3.3 Isurketak Kontrolatzeko Kanona / 24
- 5.4. UR-APROBETXAMENDUAK / 25
 - 5.4.1. Uraren kanona / 26
 - 5.4.2. Uraren erabileren inbentarioa / 27
- 5.5. IKUSKARITZA-ARLOA / 27
- 5.6. IBILGUAK MANTENTZEKO ZERBITZUA / 28

06

Plangintza eta lanak / 33

- 6.1. HIDROLOGIA-PLANGINTZA / 33
 - 6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Berrikuspena / 33
 - 6.1.2 Plangintza hidrologikoaren beste jarduera batzuk / 33
 - 6.1.3 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak / 34
 - 6.1.4 Informazio-sistemak / 35
 - 6.1.5 Lankidetzata-hitzarmenak / 35
 - 6.1.6 Formazio- eta sentsibilizazio-jarduerak / 36
- 6.2. EBALUAKETA / 37
- 6.3. UHOLDE ARRISKUAREN KUDEAKETA / 37
 - 6.3.1 Uholde-arriskuaren Ebaluazio eta Kudeaketa EAEn / 37
 - 6.3.2 Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema (UHATE) / 37
 - 6.3.3 Informazio Hidrologikoaren Sistema Automatikoa (SAIH) / 37
- 6.4. LANAK / 38



Nerbioi ibaiaren ur-jauzia (Amurrión)

AGURRA

Lagun hori:

Uraren Euskal Agentziako lan-taldeak 2018an burututako lan-egitasmo nagusien memoria aurkezten dizuet.

Euskadiko herritarrentzat lan egiten dugun zerbitzu publikoa gara. Gure lanaren funtsa, agerikoa: ingurune urtarraen egoera ona lortzea. Izan ere, herri honetan bizi garen pertsonon ur-berrizenak asetzeko bermerik hoberena da.

Parez pare, uholde arriskuaren kudeatzea dagokigu. Labur-labur esanda, bermatu beharra dugu ur goraldiek bere egiten dituen lurraldearen eremuak ez okupatzea. Halaber, ibaiari legozkiekeen eta jada okupatutako lurraldearen eremuetan, goraldiei aurre egin behar diegu: pertsonak nahiz eremu kalteberak defendatzeko.

Izan ere, “Ura da. Gu gara”. Herririk ez da ur-kalitate eta ur-kantitate nahikoa izan ezean. Jakin badakigu ura oinarrizko baliabidea dugula; hortaz, ezinbestekoa berau zaindu eta egoki kudeatzea, gure ongizatea lortuko badugu. Jakitun gara, bestalde, ura dela ekosistemaren oinarria, zein ekosistema horren kide eta menpe garela.

Balio izugarria duen ondarea delako, lurraldean harekin ondo elkarbizitzea lortu behar dugu. Ezinbesteko ditugu bere izaera aintzat hartzea, bere egiten dituen eremuetan ez sartzea eta bere izaera dinamiko setatia errespetatzea.

Beste era batera esanda: geure jardun eta presentziak ur-masetan sortzen dituzten erasanak — ur-hartze, isurketa edota lurraldearen okupazioen bidez — murriztea eta lehengoratzea dugu helburu. Azkenik, azpimarratzekoa da gure egiten ditugula genero-berdintasuna nahiz euskararen normalizazio lortzea. Hartara, Berdintasun-plana eta Euskararen Erabilera Plana onartu genituen, eta orain horiek garatzen dihardugu ekar liezazkigukeen onurak gauzatzeko, eta bidezko eta berdintasunezko gizartearen alde egiten laguntzeko.

URAn lan egiten dugun lan-taldearen izenean, gonbitea luzatzen dizugu memoria irakurtzera. Ongietorriak bitez zure iritzi eta iradokizunak, ziur baikaude gure jarduera hobetzeko lagungarri izango zaizkigula.

Horrenbestez, agur.

ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO ARRIETA
DIRECTOR GENERAL

Barbadun ibaia (Valdibian-La Olla tartean)



AUR KEZ PENA

URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia ekainaren 23ko 1/2006 Uren Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentaraua bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.

GOBERNU, KUDEAKETA AHOLKULARITZA ORGANOAK


URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URAk parte-hartze eta aholkularizarako beste bi organo ditu.

· Erabiltzaileen Batzarra, biltzera datorrena Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alorreko eskumeneko Ministerioaren,

lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELe izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak.

· Uraren Kontseilua, non Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartzen duten.





Gobernu eta zuzendaritza organoak

Parte-harte eta aholkularitza organoak

Kudeaketa organoak

Koordinazio organoak

Administrazio kontseilua

Erabiltzeen batzarra

Euskal autonomia erkidegoaren uraren kontseilua

Zuzendaritza nagusia

Eremuko zuzendaritzak

- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza
- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza

Arroen bulegoak

- Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoa
- Ekialdeko kantauriar arroen bulegoa
- Mediterraneoeko arroen bulegoa

Zuzendaritza batzordea



Estepona Ibaia (Bakio)



3.1 Kudeaketa organoak

3.1.1 Eremuko zuzendaritzak

Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak hiru Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mende:


- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritza
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza



3.1.2 Arroen Bulegoak

Bestalde, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Gasteiz).

Parte-harte eremuak eta unitate hidrologikoak



1. Ekialdeko Kantauriar arroak

- Bidasoa
- Oiartzun
- Urumea
- Oria
- Urola
- Deba

2. Mendebaldeko Kantauriar arroak

- Artibai
- Oka
- Ibaizabal
- Agüera
- Lea
- Butroe
- Barbadum
- Karrantza

3. Mediterraneoko Isurialdea

- Puron
- Baia
- Inglares
- Arakil
- Omecillo
- Zadorra
- Ega
- Ebro



Arantzazu ibaia (Oñati)



ADMINIS TRAZIOA ETA ZERBIT ZUAK

4.1 Plantilla

Uraren Euskal Agentziaren lantaldea 2018ko abenduaren 31an, honako hauek osatzen dute

| KATEGORIA | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|-------------------------------------|------------|-----------|-----------|
| Zuzendaritza Nagusia | 1 | | 1 |
| Arlo zuzendaritza / Bulegoburuak | 6 | 2 | 4 |
| Teknikariak eta tarteko arduradunak | 118 | 51 | 67 |
| Administrariak | 41 | 32 | 9 |
| LAN-HARREMAN MOTA | | | |
| Funtzionarioak | 9 | 5 | 4 |
| Laboralak | 157 | 80 | 77 |
| GUZTIRA | 166 | 85 | 81 |

4.2 Uraren aurrekontuak

4.2.1 Ustiapen-aurrekontua

| GASTUAK (Mila €) | 2019 | SARRERAK (Mila €) | 2019 |
|--------------------------|---------------|------------------------------|---------------|
| LANGILEEN GASTUAK | 9.703 | USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK | 12.796 |
| FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK | 7.738 | SARRERA PROPIOAK | 4.645 |
| GUZTIRA | 17.441 | GUZTIRA | 17.441 |

4.2.2 Kapitalaren aurrekontua

| INBERTSIOA (Mila €) | 2019 |
|---|---------------|
| BEREZKO ONDASUNAK | 12.734 |
| BESTE ERAKUNDE BATZUETARAKO KUDEATUTAKO ONDASUNAK | 12.941 |
| HIRUGARRENEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK | 140 |
| GUZTIRA | 25.815 |

4.3 Berdintasun plana

2015ean berdintasun plana adostu zen, **Berdintasun taldeak** sustatua (zuzendaritzako, langileen ordezkartzako eta URAko lanpostu desberdinetako pertsonen osatutako taldea) eta urte hauetan plan horren bilakaerak aurrera egin du.

Urte honetako mugari bezala nabarmendu beharra dago maiatzean Emakunderen aldetik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea izendapena lortzea. Halaber, nabarmendu beharra dago matxoaren 8ko grebak Euskadin izandako jarraipena.

Beste alde batetik, Berdintasun taldea 5 aldiz bildu da eta taldearen barruan planak ezarritako neurriak abian jartzen joan gara. Aurten bereziki kontratazio klausulen gainean jardun nahi izan gara, eta, era berean, iaz kontziliazioren inguruko inkestarekin hasitako lana borobildu nahi izan dugu lortutako emaitzak sortutako interes taldeetan hausnartutakoarekin osatuz.

Bidenabar berdintasun gai horiek era hurbilago batean landu eta dinamizatzeko asmoarekin URAren bulego bakoitzean jarri ziren txoko lilak eguneratzen dihardugu. Aurten, gainera, sentsibilizazio lan hori hamabostero emailez bidaltzen diren informazio pilulekin indartu nahi izan dugu hausnarketarako testu, inkesta, edo berdintasunaren inguruko gai ezberdinekin (ura eta generoa, genero ikuspegia proiektueta, maskulinitate berriak...).

Azkenik, aurreko urteetan bezala, gure web-orri eta sare sozialetan Emakunderen kanpaina berezien berri eman dugu, adibidez emakume langilearen nazioarteko egunean eta emakumearen aurkako kontrako nazioarteko egunean .

4.4 Euskararen erabileraren normalizaziorako plana

2018. urtean zehar, Siadeco ikerketa Elkarteak V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko prestatu zuen ereduaren Ura Euskal Agentziaren langile guztien artean banatu da. Hortik ateratako

datu-bilketak, euskara teknikariaren datuez gain, langileen ahozko eta idatzizko komunikazioetako hizkuntza erabileraren datu orokorrak eskuratzea ahalbidetu digu.

Erakundeko langile guztiek zuzenean emandako informazio horrek diagnostiko zehatza eman digu erabilerari lotutako adierazleen inguruan; eta horiek abiapuntu harturik, aurreikuspen xeheak egin daitezke datozen bost urteotarako.

Otsailaren 27ko 62/2018 Ebazpenaren bidez, VI Plangintzaldirako (2018-2022) Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko plan nagusia onartu zen.

Horren harira, Agentziako Zuzendaritzak plangintzaldiko lehen urtean onartu zuen, 2018ko azaroan hain zuzen ere, plangintzaldi osorako Ura Euskal Agentziaren Plan Estrategikoa. Bertan, URAren egoera zein den, zein helburu aurreikusten dituen eta bost urte barru non egon nahi duen jaso dira: denak ala denak, adierazleak oinarri.



Horretarako, urteko Kudeaketa Planak osatuko dira, kudeaketa orokorrean txertaturiko ekintzak ezarriz, eta horrela Plan Estrategikoan aurreikusitako egoera 2022rako bete dadin.

Horiez gain, urtero Euskararen arlotik egiten ditugun ekintzak ere gauzatu dira: euskalduntze ikasturtea eta prestakuntzaren barruan berariazko hizkuntza ikastaroak.



JABARI PUBLIKOAREN KUDEAKETA

5.1 Hobetzeko jarduketak

2018. urtean, honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Izapidetze elektronikoa ezarri da espediente hauetan: jabari publiko hidraulikoak obrak egiteko baimena, antolamendu xehatuari egindako hirigintza-txostenak eta jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko baimenaren jarraipena.
- Tokiko erakundeekin Ibaien mantentze lanak sustatzeko hitzarmenak garatzea, gaur egun 89arte guztira.
- Aprobetxamendu nagusien erregularizazioa, eta erabiltzen ez direnen iraungipena.

- Emari ekologikoen hitzartze-prozesua; indarrean den Plan Hidrologikoak aurreikusten dituen emari ekologikoak aintzat hartzea baldintzetan hala zehaztuta ez dituzten emakida titularrekin.
- URaren webgunean EAEko 2.000 biztanle baliokidetik gorako hiri-aglomerazioetako emaitza analitikoaren informazioa argitaratzeko aplikazioa.
- Bainu denboraldian zehar, bainu-zonaldeetan, iraupen motzeko kutsadura-gertakarien berri emateko protokoloa.
- Uren Erregistroa eguneratzea, eta bere Kudeaketa ahalbidetzeko erraminta informatikoaren garapena.

5.2 Lan-baimenak eta emakidak

5.2.1 Lan-baimenak Ur-Jabari Publikoan eta zaintza-aldean

Lan-baimenen helburu nagusia honakoa da: jabari publikoan edo haren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egiteko baldintzak ezartzea; hartara, ur-masen narriadura saihesteko, eta horien hobekuntzan ahalegintzeko. Betiere uholde-arriskugarritasuna aintzat hartuta.

Lan-baimenak, kotsultak, txosten urbanistikoak, erantzunkizunpeko nabigazio aitortzak eta salaketen tramitazioez ari gara. Halaber, jabari publiko hidraulikoan, zaintza- eta zortasun-eremuetan administrazio zein partikularrek egiten dituzten lanon eta jardueren kontrola eta jarraipena egiten da. 2018an lortutako emaitzak honako hauek dira:

2018. urtean lan-baimenen inguruko 980 txosten hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 681 ebatzi.

Mediterraneanar arroetako bulegoan ekintza txikiak egiteko erantzukizunpeko 38 aitortza abiarazi dira.

Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 525 kontsultari eman zaie erantzuna, aldeaz aurretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan. Horietatik 356 erantzun dira.

Halaber, 42 hirigintza-txosten hasi dira, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzuteko edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzuteko eta 26 txosten egin dira.


59 erantzukizunpeko nabigazio aitortza erregistratu dira: 50 mediterraneazko arroetako bulegoan, eta gainontzeko 9ak Mendebaldeko Kantauriar Arroen bulegoan.

Bestetik partikularren 222 salaketa jaso dira guztira, ustez baimenen baldintzak betetzen ez zirelako edota arau-hausteren bat zegoelako, beste batzuen artean.

Arlo honetan, 127 zehapen-txosten abiarazteko proposamen egin dira.

Indarrean den araudi-esparruak zedarritutakoari jarraiki, 111 zehapen-txosten hasi dira administrazio-baimenik gabeko lanak hasteagatik, edota Jabari Publiko Hidraulikoan erasanak sortzeagatik.

Era berean, arlo honetan jendartea artatzeko eta informatzeko lanak ugariak izan dira.



5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan


URAK administrazio eta partikularrek jabari publikoan edota itsas-lehorreko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuetan egindako lan eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten du. Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostena ematen dute.

2018. urtean 84 baimen-txosten hasi eta 64 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 241 kontsulta-txosten eta txosten-eskaera hasi eta 211ri erantzuna eman zaie, alde aurretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.


2018an, 41 erantzukizunpeko adierazpen jaso dira, itsas-lehorreko jabari publikoaren babeseko zortasun-eremuko eraikinak edo instalazioak konpontzeko, hobetzeko, finkatzeko eta berritzeko obrak egiteko.

Bestetik, partikularrek egindako 37 salaketa jaso dira guztira, ustez baimenen baldintzak betetzen ez zirelako edo arau-hausteren bat ematen zelako, beste batzuen artean. Horietatik 34 erantzun dira.

Azkenik, 12 zehapen-espeditente irekitzeko proposamen egin dira, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota itsas-lehorreko jabariari edota zortasun eremuari eragiteagatik.



2018an lortutako emaitzekin osatutako grafikak hemen:




5.2.3 Ur Jabari Publikoa okupatzeagatiko kanona

Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroetako kanona likidatzen du. Erkidego arteko arroetan, kanon hori Arroko Erakundeak edota Estatuko Ogasun Administrazioak bilduko du, bien arteko hitzarmenik izanez gero.

2019. urtean, 2018ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 515.079 € bilduko direla aurreikusten da.

Ur Jabari Publikoa okupatzeagatik kanonaren eboluzioa.

JPHn okupazio-kanonaren eboluzioa



Hondarribia portua

5.3 Isurketen arloa

5.3.1 Isurketa-baimenak

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da: jabari publikora egin beharreko isurketak zein baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta erasanik txikiena eragiteko.

2018an isurketak baimentzeko edo indarraldia iraungituta berraztertzeko 190 eskaera berri izapidetu dira, eta aurreko urteetan hasitako baimen-ebazpenik gabeko txosten ugari izapidetzen ere jarraitu da. Bestalde, 214 isurketa-baimen ebatzi dira, 2018an hasita edo lehenago.

Horrez gain partikularren, administrazioen edo enpresen 140 kontsulta jaso dira eta 88 erantzun, aurretik aipatutako arloetan egin beharreko ekintzei buruz.

Isurien eroldaren arabera, baimendutako 2.351 isurketa-baimenen jarraipena egin da, baita Hondakin Uren Araztegi (HUA) nagusien ustiapen-txostenak ere. Beren beregi, 2000 biztanle baliokide goragoko aglomerazioetan, eta jabari publikoan erasan nabarmenak sortzeko ahalmena duten isurketa-puntuetan ere.

Beste alde batetik, partikularren 251 salaketa jaso dira administrazio-baimena ez betetzearen susmoagatik, edota baimenak ez betetzeagatik.


2018an 79 zehapen-espediente irekitzeko proposamen egin dira. Halaber, 55 zehapen-espediente abiarazi dira, isurien arloan indarrean dagoen legedia ez betetzeagatik.

5.3.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua

Ingurumena, oro har, babesteko helburuarekin 16/2002 Legeak Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen: hartara, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean. Hala hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan, nola ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.

2018an zehar ingurumen-baimen integratuaren 16 ebazpen-proposamen berritan parte hartu du URAK, eta 2 ebatzi dira.

Isurketa arloko datuak





Mendatako ur-jauzia




5.3.3 Isurketak Kontrolatzeko Kanona


Ur-Jabari Publikora egiten diren isurketengatik isurketa kanona ordaintzen da, eta jabaria zaintzeko eta hobetzeko erabiltzen da bildutako dirua. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arroen kanona baino ez du likidatzen.

Hona hemen Jabari Publiko Hidraulikora isurketak kontrolatzeko kanonean aurreikusten den diru-sarreraren eboluzioa.

JPH Isurketa-Kanonaren eboluzioa



Lehorretik itsasora egiten diren isurketa-kanonaren eboluzioa*



*2018ko datua aurreikuspena da, ez baitira ezagutzen oraindik Jarraipenerako Aukerako Protokoloen emaitzak.

Jarraipenerako Aukerako Protokoloak isurketa-baimenetan ezarritako Kontrol eta Ikuskapen Planei gehitzen zaie, eta isuritako kontzentrazio eta bolumenak zehazten ditu urteko isurketa-kanona kalkulatzeko: lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzko 2013/459 Dekretuaren, abenduaren 10eko, IV Eranskinak zedarritutakoari jarraiki. Protokolo horiek, aurretiaz, URaren onespena izan behar dute.

5.4 Ur-aprobetxamenduak

Ur-aprobetxamenduetarako emakidek honakoa lortu nahi dute: jabari publikotik ura hartzeko betebeharreko baldintzak ezartzea, lehenetasun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihesteko.


Barne arroi dagokionez, Kantauriar Arroen Bulegoetan ur-aprobetxamenduen txostenen izapidetzean, eta haien jarraipen eta kontrolean lan egiten da. 2018an zehar, 60 txosten berri abiarazi dira aprobetxamenduei buruzkoak (emakidak edota erabilera pribatiboak), eta 232 ebatzi dira.

Beste alde batetik, denbora tarte horretan, aprobetxamenduak erregularizatzeko 59 txosten abiarazi dira (titularra edota ezaugarriak aldatzeko, zein iraungitzeko). 152 ebatzi dira guztira, eta horietako 128, iraungitzeekin zerikusirik izan dute.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 64 espediente abiarazi dira epealdi honetan eta 50 erantzun dira.

Azkenik, indarrean den araudi-esparruak zedarrantutakoari jarraiki, ur-aprobetxamenduei buruzko 30 salaketa jaso eta gero, 25 zehapen-txosten proposamen hasi dira.

Aprobetxamendu-arloko datuak



5.4.1 Uraren kanona

EAEen uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek Plangintza Hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAEen, uraren erabilerak ingurumenari eragin diezaiokeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezartzen zaie kanona:

- Hirugarren batzuek hornituak izan arren, erabiltzailearen ur-kontsumoari.
- Azaleko uraren kontsumoa, lurpeko, euri-urak edo isurketak, itsaso edo beste erabiltzaile batzuek zuzenean egindako beste iturri baten ur-hartzeaz gain.
- Uraren kontsumoa edo erabilera edozein dela ere, jatorria edo hornikuntza iturriak kontuan hartu gabe, produkzio-erabilerarekin lotuta dagoen ala ez, kontratatutako ziurtagiriak neurtu eta fakturatzen den ala ez.


Uraren Kanonaren zerga-tasa 6 zentimokoa da kontsumitutako m3 bakoitzeko (1.000 litroko).

Salbuetsita dauden hainbat erabilera badira; horien artean nabarmenena etxeko erabilera (hainbat azterlan egiteko zain dagoen aplikazioa). Bestalde, hobariak ere eska daitezke, eta hainbatetan zerga-oinarriaren %95era irits daitezke.

Diru-bilketa

2019. urtearen hasieran, guztira 1.904.430€ira iritsi dira 2018. ekitaldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak. Hala ere, litekeena da zenbateko hori denbora gutxi barru nabarmen handitzea, aurreko zenbatekoen antzekoetara heldu arte, 2018ko ekitaldian guztira 2.552.197€. bilduko direla uste baita (horietatik 137.000€ kendu beharko dira, konpentsatzeko gastuak izateagatik).

Uraren Kanonagatik sartutako zenbatekoaren eboluzioa



*1: Behin-behineko kopurua bada ere, ekitaldiaren likidazioa burututakoan handituko da.

5.4.2 Uraren erabileren inbentarioa


Uraren Euskal Agentziaren Uraren Erabileren inbentarioan (UEA) biltzen da EAE mailan uraren aprobetxamenduaren inguruko informaziorik esanguratsuena, kontuan izan gabe bere egoera administratiboa edo eskumen-eremua. Helburua da kontsultak egin ahal izatea eta lortutako informazioa esportatzea. Datu-biltegi horrek kontsultak egitea eta lortutako emaitzak ateratzea ahalbidetzen du.

5.5 Ikuskaritza-arloa

URako ikuskaritza-arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioaren berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

2018an zehar 6.490 ikuskapen egin dira: horietako 3.565 isurketak kontrolatzeko eta abisuak jaso ondoren egin dira; 2.383 lan-baimenekin zerikusia izan dute; 459 mantentze lanekin, eta 83 aprobetxamenduekin.

Ikuskapen-kopurua guztira




Isurketa arloan, egindako ikuskatze zatirik handiena, 3000tik gora, isurketa-baimenen baldintzen kontrolarekin dute zerikusia. Gainontzekoak, baimendu gabeko isurketak antzemateko edota SOS Deiak-ek emandako abisuak artatzeko izan dira, bereziki.

Isurketa-ikuskaritza



Ikuskariek SOS Deiak erakundearen abisuak artatzen dituzte, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, eskaera guztiei erantzunez. 2018an horrelako 425 abisuri eman zaie arreta.


Abisuen urteko eboluzioa




Ikuskaritzaren lanon ildotik, URAk Lasarten duen laborategian, 2018 urtean, 1325 lagin aztertu dira guztira.

URako laborategia Gipuzkoan denez, laginak bertararazteko denbora ahalik eta gehien murriztarazteko (haien kaltetzea saihesteko), Administrazio Hidraulikoaren erakunde laguntzaile Laboratorio de Ensayo-ren laguntza eskuratu da, Mediterraneo Arroetako bulegoko ikuskariek hartutako laginen karakterizazio analitikoa egiteko. Guztira, 661 lagin aztertu dira erakunde horri esker: horietako 549, aurretiaz aurreikusitakoak.

Lagin-analisiak URA-laborategia vs kanpoko laborategia




Lagin-analisiak Laginak guztira vs programatutako laginketa



Ibaietatik edota kostaldetik gertu egindako jardueren ikuskatzeari dagokionez, horietatik gehienak lan-baimenen izapidetzea osatzeko eta baimenak betetzen direla kontrolatzeko egiten dira: 1.887 ikuskatze guztira. Horietako 632, lanak bukatu eta geroko ikuskapenak: alegia, lanok baimenak zedarritutako baldintzei jarraiki egin direla baieztatzeko ikuskapena.

Lanen ikuskaritza



Gainontzeko ikuskapenak (496), inbentario-lanekin zerikusia izan dute.

Aprobetxamenduen ikuskapenari dagokionez, 72 ikuskapen egin dira, agorraldi sasoiaren egiten diren ur-emariak neurtzeko programaz gain. Era berean, abiarazi diren zehapen-prozeduretan jatorria duten ikuskapenak egin dira: Jabari publikoan, zaintza eremuan edota itxaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babes-zortasunaren eremuan antzeman diren erasanak erregistratzeko.

5.6 Ibilguak mantentzeko zerbitzua

Ibilguak leheneratzeko eta mantentzeko zerbitzuak xede nagusia du ekosistema urtarrak hobetzea, uraren esparru zuzentaruak ezarritakoari jarraituz. Bestalde, ibaien ur-hustuketarako ahalmena mantentzeko lanak egiten ditu, urak gainezka egiteko arriskua murriztarazteko.

2018an, 911 jarduketa egin dira ibilguak oneratzeko, kontserbatzeko edo mantentzeko, 2.834.585 euro inbertituta. Aurrekontuaren 71,6%a ekosistemen hobekuntzarako ekintzetan inbertitu da (ingurumena lehengoratu, landaketak, inbaditzaileak eraztea) eta % 28,4a atal hidraulikoaren mantentzearekin eta ustekabeekin zerikusi handiagoa zuten jarduketetan (ibilguak gainezka egiteko arriskua murriztearren, oztupoak edo jalkinak premia handiz edo txikiz erretiratzea).

Arro-bulegoka sailkatuta, ibaiak leheneratze eta zaintze lanek honelaxe xehatzen dira:

LAN-MOTA BAKOITZEKO EGINDAKO INBERTSIOA

| | Ekintza-kopurua | Kostua | Kostuen zenbatekoa %tan |
|----------------------------------|-----------------|-----------------------|-------------------------|
| Bioingenieritza eta lanak | 68 | 737.542,99 € | 26,02 % |
| Sekzio hidraulikoaren mantentzea | 230 | 657.887,02 € | 23,21 % |
| Landaketak | 353 | 388.029,73 € | 13,69 % |
| Espezie inbaditzaileak kentzea | 272 | 904.133,66 € | 31,9 % |
| Ustekabeak | 66 | 144.969,11 € | 5,11 % |
| Bestelakoak | 2 | 2.023,12 € | 0,07 % |
| GUZTIRA | 991 | 2.834.585,64 € | 100 % |

1- Mendebaldeko Kantauriar Arroak

LAN-MOTA BAKOITZEKO EGINDAKO INBERTSIOA

| | Ekintza-kopurua | Kostua | Kostuen zenbatekoa %tan |
|----------------------------------|-----------------|-----------------------|-------------------------|
| Bioingenieritza eta lanak | 26 | 212.084,54 € | 20,11 % |
| Sekzio hidraulikoaren mantentzea | 177 | 440.835,41 € | 41,81 % |
| Landaketak | 92 | 110.293,9 € | 10,46 % |
| Espezie inbaditzaileak kentzea | 71 | 290.216,1 € | 27,52 % |
| Ustekabeak | 1 | 199,65 € | 0,02 % |
| Bestelakoak | 1 | 755,04 € | 0,07 % |
| GUZTIRA | 368 | 1.054.384,65 € | 100 % |

2- Ekialdeko Kantaurian Arroak

LAN-MOTA BAKOITZEKO EGINDAKO INBERTSIOA

| | Ekintza-kopurua | Kostua | Kostuen zenbatekoa %tan |
|----------------------------------|-----------------|----------------------|-------------------------|
| Bioingenieritza eta lanak | 15 | 200.815,72 € | 18,32 % |
| Sekzio hidraulikoaren mantentzea | 26 | 108.385,86 € | 9,88 % |
| Landaketak | 113 | 61.075,04 € | 5,57 % |
| Espezie inbaditzaileak kentzea | 185 | 605.390,93 € | 55,22 % |
| Ustekabeak | 59 | 120.587,55 € | 11 % |
| Bestelakoak | 0 | 0.00 € | 0.0 % |
| GUZTIRA | 398 | 1.096.228,1 € | 100 % |

3- Mediterraneer Arroak

LAN-MOTA BAKOITZEKO EGINDAKO INBERTSIOA

| | Ekintza-kopurua | Kostua | Kostuen zenbatekoa %tan |
|----------------------------------|-----------------|---------------------|-------------------------|
| Bioingenieritza eta lanak | 27 | 324.642,73 € | 47,46 % |
| Sekzio hidraulikoaren mantentzea | 27 | 108.692,75 € | 15,89 % |
| Landaketak | 148 | 216.660,79 € | 31,68 % |
| Espezie inbaditzaileak kentzea | 16 | 8.526,63 € | 1,25 % |
| Ustekabeak | 6 | 24.181,91 € | 3,54 % |
| Bestelakoak | 1 | 1.268,08 € | 0,19 % |
| GUZTIRA | 225 | 683.972,89 € | 100 % |

Halaber, 2018 urtearen amaieran, dagoeneko 89 udaletzek sinatu dute Uraren Euskal Agentziaren eta udaletxeen arteko lankidetzaren protokoloa, jabari publiko hidraulikoko ibilguetan eta ibaiertzetan modu bateratuan esku-hartzeko. Kantauriar Mendebaldeko Arroetan 33; Kantauriar Ekialdeko arroetan, 21 eta

Mediterraneer arroetan, 35. Hala, URArekin elkarlanean aritzen dira udalerriko ibaien egoera hobetzeko jarduketaren plangintzan eta betearazpenean. Era berean, hitzarmena sinatu ez duten udalekin ere batzarrak izan dira, lanok adosteko.

2018an ibilguen mantentze zerbitzuak egin beharreko lanen urteko plangintzarako 6 bilera egin dira. Koordinazio bileratan hitz egindako gai nagusiak honako hauek izan dira:

Esleitutako enpresen gainbegiraketa eta monitorizazioa, zein obra eta aurrekontuen kudeaketa.

- Urteko Plangintza: Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko 2019 ekitaldirako programa.
- “URA eta Udala elkarlanean ur-jabari publikoaren ibilgu eta ibaiertzetan lanak sustatzeko protokoloa” prestatu.
- Jarduketaren lehentasuna ezartzeko irizpide komunak adostu.
- Normalizatutako metodologia eta prozedura komunak ezartzea.
- Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu da, erakundearteko koordinazioa hobetzeko ibilguei loturiko jarduketetan.
- Mantentze-lanen tresna informatikoa eta datu-basea prestatu eta garatu (APPCAUCES). Datuen ustiapenean Hobekuntzak egin dira, hainbat ebaluazio automatizatu eta jarraipen txostenen bidez.
- Zerbitzuak burututako ekintzak hedatzeko lan metodologiak ezartzea.

• Laneko metodologiak ezartzea ingurumeneko sentsibilizazio eta hezkuntza kanpainak sustatzea eta kudeatzea, ikasleei eta herritarrei, ibaien egoera ekologiko eta kimikorik onenaren garrantziari dagokionez.

Zirauntza ibaia (Araia)



PLANGINTZA ETA LANAK

6.1 Hidrologia-plangintza

6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Berrikuspena

2016an amaitutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren berrikuspena urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez onartu da, zeinak Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duen. Bada, 2018an zehar, lortutako emaitzen analisia abiatu da dagokion jarraipen txostenak idatzi eta etorkizunean 2021-2027 aldirako egin beharreko planaren berrikuspenarako oinarri izango diren azterketak egiteko estrategiak definitzeko.

Era berean, Uraren Euskal Agentziak hasi du 2017ko Ekialdeko Kantauri Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren jarraipenerako txostena egiten, Kantauri Konfederazio Hidrografikoarekin lankidetzan. Plan horren 73. Artikuluak dioenari

jarraiki, txosten honetan aztertzen diren gai nabarmenenak honakoak dira: ur-baliabideak, ur-kontsumoak, emari-ekologikoen betetze-maila, ur-masen egoera eta neurri-programaren ezartze-maila.

Uraren Esparru Zuzentarauan ezarritako egutegia dela bide, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren berrikuspenari ekin zaio. Hirugarren plangintza-zikloko hasierako agiriak egin dira, Kantauri Konfederazio Hidrografikoarekin elkarlanean horiek ere, eta kontsulta publikoa egin da, sei hilabetez, 2018ko urrian hasita.

Gainera, hainbat azterlan eta lan hasi dira, berrikuspenarako beharrezkoak guztiak ere, tartean, baliabide hidrikoen ebaluazioa eguneratzea eta EAEko Ibai kategoriako ur-masen karakterizazio morfologikoa eguneratzea.

6.1.2 Plangintza hidrologikoaren beste jarduera batzuk

2018an zehar Uraren Euskal Agentziak EAEko Barne Arroen Eremuan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren lan gehienak burutu

ditu, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen zuen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15-artikuluari jarraiki.

2018an, egiteke zeuden 19 aprobetxamenduen prozesua bururatu da: akordioak hitzartu dira; zegoen jakinarazpenak bidali dira; eta behar ziren neurriak hartu dira. Halaber, ituntzeke zeuden 7 aprobetxamenduetan modu aktiboan hartu da parte, eta kontsulta- eta partaidetza-prozesutik eratorritako dokumentazioa osatu da, hala nola unitate hidrologiko bakoitzaren behin betiko agiriak eta zegoen ebazpenak, buletineta argitaratuta. 2019an amaituko da gainerako aprobetxamenduak ituntzeko prozesua, eta dagokien dokumentazioa osatuko da.

Busturialdeko Uren Partzuergoari laguntza eman zaio Urdaibai Biosfera Erreserbaren hornidurarako Lurraldeko Ekintza Plana izapidetzeko prozesuan. Uraren Euskal Agentziak, aipatu partzuergoak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ondu dute plana, ur-hornidura bermatzeko arazoaren konponbidean hasierako urratsak ematea eta Oka arroko emari ekologikoen babesa bermatzea xede.

2018an zehar Euskadiko barneko arroetako **Lehorteetarako Plan Berezia** egiteko lanak abiatu dira, plangintza hidrológico berrira egokituta, zeina 2018an zehar kontsulta publikoan jartzea, kontsolidatzea eta onartzea espero den.

Erreserba hidrológico berriak identifikatu dira, ibai, laku eta lurpeko motatakoak, jabari publiko hidraulikoko erregelamenduaren aldaketan xedatutakoarekin bat. Halaber, barne-arro izendatutako ibai-erreserbetan, mugapen kartografiko berria zehazteko egin da lan, eta horietako bakoitzerako kudeaketa-neurri indibidualizatuen programetan, plan hidrológicoan barne hartutako neurrien programan txertatzeari begira. Gainera, elkarlanean aritu gara EAEko erkidegoarteko arroetako erreserba hidrológicoetarako neurrien programen zehaztapenean.

Hainbat lan egin dira ere Euskadin **zebra-muskuiluak** duen presentzia aztertzeke. Besteak beste, honakoak dira lanok: administrazio ezberdinen arteko koordinazioa EAEn zebra-muskuilua kontrolatzeko Jarraipen eta Koordinazio Batzordearen baitan, larba egoeran dauden populazioen eta populazio helduen kolonien jarraipena eta zebra-muskuiluak naiade espezie mehatxatuetan duen eraginaren ebaluazioa. “Euskal Autonomia Erkidegoan zebra-muskuilua kontrolatzeko 2018-2020 aldirako ekintza-plana” idatzi da, non espeziaren kudeaketan zerikusia duten erakundeek denbora tarte horretan garatu beharreko jardueren plangintza jaso den.

6.1.3 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak

2018an zehar **Euskadiko uren egoeraren jarraipenerako programak mantendu dira**. Sareok ur-masen eta babestutako zona jakin batzuen egoeraren eta bilakaeraren gaineko informazio zehatza jasotzea ahalbidetzen dute euren egoera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboari dagokionez, betiere Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako kontrol baldintzak jarraituz. Sortutako informazioak ahalbidetzen du ingurumen irizpideak zehaztu edo/eta berrikustea, plan hidrológicoetan ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatzea eta urarekin lotutako baimen eta kontzesioak kudeatzeko zereginetarako oinarri izatea.

2018an, aurretiazko lanak egin dira Uraren Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak lankidetzak-hitzarmen bat sinatzeko kontsumo publikoko uren eta bainu-eremuetako uren kalitatea babesteko arloan. Bestalde, **kontrol zehatzagoa** beharrezkoa dutela nabaritu den eremuetan jarraipen bereziak egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ihobe, etab.) laguntzarekin. Hartara, arazo zehatzak dituzten azaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehatzagoak egin dira, hala nola, Gernikan, Lantaronen, Forondan, Loiolan, Bidasoan etab.

Plangintza hidrológicoaren arloan eskumenak dituzten administrazio eta erakundeekin **informazioaren partekatu eta koordinatzeari** dagokionez, lortutako informazioa estatu mailan eta Europa mailan eskaintzeko beharrari erantzun zaio: OSPAR Hitzarmena, NABIA plataforma, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa diotenari jarraiki, beste batzuen artean.

Jarraipenerako programa horien emaitzak eskuragarri dira webgunean, ingurumen-**informazio eskuratzeko** betekizunak aintzat hartuta. Datuok bildu dira, bai URAko bisorean, baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-arloko Estatistika Organoa Berezian —tauletan—. Era berean, 2018an UBEGI deritzon plataforma bat martxan jarri da, jarraipenerako programa horiek guztiek sortutako informazioa eskuragarri eta eskuraterraz eskaintzeko.

Plangintza hidrológicoan zehazten diren emari ekologikoen araubideak betetzeari dagokionez, laguntza eman zaio ikuskaritza-sailari ur-maila beheetan 2018ko ekitaldian neurtu beharreko puntuak zehazteko lanetan. Guztira, 25 neurketa egin dira, eta lortu diren emaitzak aztertu, eta gure datu-basean sartu ditugu. Gainera, 18 neurketa gehigarri egiteko kontratuak egin dira, Ebroko Plan Hidrológicoan zehazten diren emari ekologikoen eta eremu horretan garrantzizkotzat hartzen diren beste gune batzuen jarraipena egiteko. Azkenik, emari ekologikoen kontrol sistematikoari eutsi zaio EAEko barne-arroetako neurketa-estazioetan.

6.1.4 Informazio-sistemak

2018. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren **Espazio Datuen Azpiegitura** (EDA) **hobetu eta garatzeko** lanekin jarraitu dugu, GeoEuskadiren barnean. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabalduak datu eskuragarriak gehitu dira. Era berean, PORTAL for ArcGIS tresna berria txertatzeko lanak hasi dira. Horri esker, informazio geografikoa eta negozio-informazioa lantzeko eta aurkezteko modu gehiago erabili dira aukeran.

Aurrerapausoak eman dira URaren **erakunde transbertsalen** proiektuan. Datuen gaiak eta familiak ugaritzen jarraitu dugu, eta horiek espediente-kudeatzailean beste familia batzuekin integratzen, esaterako, harguneeen bateragarritasun-txostenekin. Horrela aplikazio geografikoen eta alfanumerikoen arteko erabateko integrazioa lortu da, onuragarria dena bai informazio bilketa hobetzeko bai informazio geografikoko bilketako akatsak era nabarmenean murrizteko.

Gainera, beste aplikazioekin egindako aipatu integrazioaz gain, erakunde gehiago sartzen ere jarraitu da.

Bestalde, 2017an Qgis programa teknikarien erabilera arrunteko geografia-informazio sistema bihurtu zenetik, informazio eskuragarria ugaritzen jarraitu dugu, eta sortu diren proiektuen eta geure egin ditugun tresna berrien kopuruek ere gora egin dute. Qgis software libreko lizentziekin garatutako programa bat da, informazio geografikoa lantzeko erreminta ugari dituen eta oso erabilerraza.

Edizio-ikustaile bat ondu dugu, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritzeko, bai giza kontsumoko ur-harguneeen geolokalizazioan, bai erakunde bien datu-baseak erlazionatzeko lanetan.

6.1.5 Lankidetzak-hitzarmenak

2018. urtean ondorengo erakundeekin lankidetzak-hitzarmenak sinatu edo garatu dira, oro har, ekosistema urtarrak babestu edota hobetzeko helburuekin.

Uraren Euskal Agentziak lankidetzak-hitzarmen bat dauka **AZTI-Tecnalia** Fundazioarekin, besteak beste, EAEko trantsizioko eta itsasertzeko ur-masei loturiko ekosistemen ezagutza-maila hobetzeko eta ekosistemon degradazioa saihestu eta euren egoera hobetzeko ekintzak sustatzeko. Hitzarmenak EAEko trantsizioko eta itsasertzeko urei loturiko itsasertzeko guneen kudeaketa hobetzeko ekintzak bultzatzea ere badu xede. Bada, hitzarmenaren baitan, 2018an hainbat lan egin dira, besteak beste, EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea; eta Dragatzeek EAEko trantsizioko ur-masen egoera ekologikoan duten eraginaren berriazko azterlan bat hasi dugu.

2014ko abenduaren 15ean, Agglomération Sud Pays Basque, Niveko sindikatua, Agence de l'eau Adour-Garonne, Pyrénées-Atlantiques-eko Kontseilu orokorra Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Uraren Euskal Agentziak sinatutako **Ur partekatuen kudeaketa-gutuna** sinatu zuten. Gogoratu behar da gutun horren helburua dela

administrazio arteko lankidetzak sustatzea uraren kudeaketaren eta ur-baliabideen inguruan, partekatzen diren ibaietako ura era iraunkor, bidezko eta koordinatu batean erabil dadin, 2018an urteroko bilera teknikoa eta ordezkari politikoen bilera burutu dira.

Aurretik aipatutako kudeaketa-gutunaren eta INTERREG_POCTEFA 2016-2019 deialdiaren baitako **H2OGUREA proiektuaren** garapenak aurrera egiten jarraitu du 2018an zehar, aurreikusitako egutegia betez. Proiektu berri horrek xede du, alde batetik, eragile eskudunen arteko koordinazioa lortzea mugaz gaindiko arroetan, eta, beste alde batetik, urarekin eta ingurune urtarrarekin harremana duten zuzentzaruen helburuen garapena. Bertan parte hartzen dute baita ere Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Txingudiko Zerbitzuak, Urdax eta Agglosud Pays Basque.

2018an aurrerapena egian da ere **Uraren Euskal Agentziak, Arabako Foru Aldundiak, Vital Fundazioak, Añanako Kuadrillak eta Lantarongo Udalak Sobrongo udalerrian kokatutako Uraren Museoaren kudeaketa eta zabalpenerako lankidetzak-hitzarmenaren garapenak**. Hitzarmenarekin Euskal Autonomia Erkidegoan aitzindaria den proiektu bat jarri nahi izan da martxan, bai jorratutako gaiarengatik bai erabilitako teknika museografikoengatik. Publiko zabal bati zuzendutako museoak da, eta teknologia modernoek eta simulazioek aldi berean ikasketa eta dibertsioa ahalbidetzen dituzten espazio interaktibo gisa diseinatuta dago. Uraren Museoak ingurumen-hezuntzarako oinarritzko bitarteko bilakatu nahi

du, bisitariek baliabide naturalen kontserbazioan, ingurumen-hobekuntzan eta uraren kontsumo arduratsuan parte har dezaten bultzatuz.

Lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetu dugu Itelazpi sozietate publikoarekin (2018ko ekainean), Itelazpi telekomunikazio-azpiegiturak instalatu dituen gunetako batzuei balioa emateko. Horretarako, ibai-ibilbide berriak diseinatu eta finantzatu dira, ingurune horretako ibai-intereseko guneean.

6.1.6 Formazio- eta sentsibilizazio-jarduerak

2018an zehar URAK ingurune urtarraren inguruko **zientzia-formakuntza, partehartzea eta dibulgaziorako ekitaldietan** parte hartu du. Nabarmendu daitezke, beste batzuen artean:

- 2018ko CONAMA, ingurumeneko kongresu nazionala (2018ko abenduan)
- EAEko Natura 2000 Sarearen Europako finantzaketari buruzko jardunaldi teknikoak (2018ko urrian).
- ECOMED jardunaldia, ibaiak oneratzeko esperientzietan ingeniaritza naturalistikoko teknikak aplikatzeari buruz. (2018ko urrian).
- Zientzia Astea 2018 (2018ko azaroan).

Gainera, sentsibilizazio estrategiari jarraipena emateko, 2018an zehar ingurune hidriko ezagutza zabaldu eta hobetzeko lan egin da. Horretarako, herritarrengana hurbiltzeko **dibulgaziozko hitzaldiak, ibaietako ibilbide berriak, EAEko ibaien gaineko argazki erreportajeak, infografia tematikoak eta** dibulgaziozko azterketak bultzatu dira.

Gaikako aurkezpenek aurrera egin dute, eta URAK, ATARIA zentroarekin elkarlanean, «Lurraren erraietatik isurtzen den ura» erakusketa ondu du (2018ko martxoan), lurpeko uren arloari balioa emateko eta herritarrei ezagutzera emateko.

Halaber, **URAKo irudi-bankua** ere jarri da abian, Eusko Jaurlaritzako ARGAZKI dokumentu-funtsaren barruan.

6.2 Ebaluaketa

Ebaluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiekturen azterketa eta txosten egiteko lanarekin jarraitu dugu Administrazio Hidrauliko honek aplikatu dezakeen araudiari egokitzen dela egiaztatzeko. Lan hori Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzeta estuan garatzen da eta honako izapide hauek ditu aztergai:

- Euskadiko barne arrotako aprobetxamendu eskaeretan, **Hidrologia-planak ezarritakoarekin bat egiten duten ikusteko txostenak**. Konfederazio hidrografikoak eskatuta, baita erkidegoarteko arrotako aprobetxamendu eskaeretan ere bateragarritasuna ikusteko txostena.
- Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, **Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua I letrari jarraiki**.
- *Antolamendu estrukturalako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien*

hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua k) letrari jarraiki.

- Hirigintza-espeditenteen txostena, udalen behin-behineko onespeneren ondoko fasean, **Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean**, espeditentea behin betiko onartu baino lehen.
 - Txostena dagokion ingurumen-organismoari ematea, **Ingurumen Ebaluazio Azterlanen izapidetzearen** esparruan: plan, programa zein proiektuetarako.
 - Kutsatutako lurzoruei buruzko txostena, eta lurzorua kalitateari buruzko adierazpenak (abeltzaintza-ustiapen jardueretarako baimenak, betelanak, zaborteak...)
 - Gernikako babes-perimetroan egin beharreko jardueri buruzko txostenak; eta administrazio, aholkularitza eta jendarteak egindako kontsultei erantzuteko txostenak: Ingurumena, uholde-arriskua, ingurune urtarra, Hidrologia-plangintzako babesguneak...
 - Uraren Euskal Agentziako eskumenetako gaietan isla izan lezaketen balizko araudiari buruzko txostenak.
- Horrela, ebaluazio-arloaren 2018ko ekitaldiko jardura, laburbiltzeko, azterturiko espeditenteen zifrak eta idatzitako txosten edo oharra (399 guztira) kontuan izanda:
- 81 txosten Uren administrazio-emakidekin loturikoak, barne zein erkidegoarteko arrotan.
 - 138 txosten Proiektu, programa eta planen Ingurumen Ebaluazio-izapidetzerako.

- 79 espediente hirigintza-planteamenduen berrikuspenekin loturikoak — uraren esparruko zein lurzoru-esparruko araudiak aintzat hartuta —, prozedura-fase desberdinetan, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordearen esparruan, espedientea behin betiko onartu baino lehen.

- 53 espediente aurkeztu zaizkio Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordeari onespena lortzeko (4 2017an eginda, baina 2018an igorrita).

- 48 espediente kutsatutako lurzoruei buruzkoak, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak (abeltzaintza-ustiapen jardueretarako baimenak, betelanak, zabortejiak, Gernikako babes-perimetroan egin beharreko jardueri buruzko txostenak; kontsultei erantzuteko txostenak: Ingurumena, uholde-arriskua, ingurune urtarra, ...)

Halaber Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin batera lan egin da hainbat presa txiki iragazkor egiteko proiektuak aztertzen, arrainen mugikortasuna hobetzeko helburuarekin. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara eta lau txosten egin dira Erkidegoko arroetako hainbat zubi eta elementu arkitektonikoen inguruko ebazpen edo ebazpen zirriborroen harira.

6.3 Uholde arriskuaren kudeaketa

6.3.1 Uholde-arriskuaren Ebaluazio eta Kudeaketa EAEn

2018an, URAk, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin elkarlanean, Ekialdeko Kantauriko Demarkazio Hidrografikoko uholde-arriskuaren atariko ebaluazioa (UAAB) ebaluatzeko eta eguneratzeko lanak egin ditu. Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin elkarlanean, halaber, Ebroko Demarkazio Hidrografikoko UAABa berrikusi eta eguneratu da. Agiriok ere kontsulta publikoan jarri dira.

Gainera, egungo arriskugarritasunaren kartografia berrikusteko lanetan jardun gara, baita informazio gabeko edo informazio zaharreko ibai-zatien kartografia berriarenetan ere. Aipatu kartografia txertatu dugu EAEko Datu Espazialen Azpiegituran (DEA), eta hainbat kartografia-ikustailerekin kontsulta daiteke. Gainera, uholde-arriskuko eremuen kartografia-sistema nazionalarekin koordinatu da.

Uholde-arriskuak gora egitea ekiditeko, 2018an 218 txosten-eskakizun atenditu dira; horietatik, 49 hirugarrenen azterlan-hidraulikoen balidazioak dira, eta 64 askotariko jarduketak eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planeko gidalerroak bateragarriak diren aztertzekoak. Gainerako 105ak uholde-arriskuaren arloko informazio-eskakizunak dira.

Azkenik, 2018an, klima-aldaketak EAEko uholde-arriskuan izan ditzakeen ondorioen ezagutzan sakondu dugu.

6.3.2 Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema (UHATE)

2016an zehar sistemak alertak sortu ditu euri-gogorretako gertakariak zetozeला. Horrelako kasuetan protokoloak ezartzen duenari jarraiki, hala Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritza, nola horrelakoetan biltzen den krisi-mahaiko kideek bertatik bertara ezagutu dituzte ibai eta urtegieta kokatutako kontrol puntuetan gertakariak izan duten bilakaeraren simulazioaren emaitzak. Urtegi dagokionez, era berean, Ebro zein Kantauriko Konfederazioei hainbat ekintza proposamen helarazi zaie Zadorra eta Añarben izandako gertakarietan.

Sistema etengabeko hobekuntza prozesu batean dago simulazioak ahalik eta zehatzenak izan daitezzen, eta sistemaren ahalmenak handituko dituen tresna osagarriak abian jarri ahal izateko.

6.3.3 Informazio Hidrologikoen Sistema Automatikoa (SAIH)

Sistema honek, gaur egun, EAEn kontrol hidrometeorologiko eta kalitaterako sare bateratua osatzen duten kontrol puntuetatik jasotako informaziotik hartzen ditu datuak. Horien ustiapena honako erakundeek egiten dute: Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek, Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritzak, URAk; Kantauri eta Ebroko Konfederazioek estazio batzuk dituzte, eta Añarbeko urtegi monitorizazioak eskaintzen duen informazio nabarmenenena ere erabiltzen da.

Sistema mantentzeak bertan sartzen den informazioaren etengabeko monitorizazioaren beharra dakar eta lortutako datuak iragazi eta balioztatzearena. Lan horrek guztiak xede du EAEko parametro hidrometeorologikoaren bilakaeraren serie adierazgarriak sortzea.

6.4 Lanak

Aldi honetan hainbat jardun prestatu eta egin ditugu plangintza hidrogikoa aurreikusitako eta URaren erantzukizuna diren zenbait helburu lortzeko; hala nola: ur-masen egoera ona lortzea, babes egokia ematea edota uholdeen aurkako defentsa. Horrekin batera beste erakunde batzuen erantzukizuna diren helburuak lortzeko elkarlanean aritu gara; besteak beste: ur-eskariei erantzutea eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Lan horiek burututa hainbat gauza lortzen dira: kudeaketa integratua eta ur-baliabideen epe luzerako babesa, uren egoeraren narriadura saihestea, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza; kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2018. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Oiongo HUAren handitze eta hobetzeko lanak amaitu dira.
- Aguraingo HUA

- Mundakako itsasadarrean, Sukarrieta eta Lamiarango HUAren arteko tartean, saneamendu-kolektore nagusia osatzeko 2 Proiektu banakatuko lanak bukatu dira.

- Mundakako itsasadarraren ezker aldeko itsasadarraren saneamendu orokorraren lanak jarraitzen dira lanean Gernika-Busturia atalean

- Kadagua ibaiaren uholdeen aurkako defentsa lanen exekuzioa Mimetiz auzoko Zalla auzoan lanak jarraitzen dira.

- Zangroizen Asua ibaiaren ezker ertza leheneratzeko obrei hasiera eman zaie.

- Martutene auzoan Urumea ibaiaren uholdeei aurre egiteko lanen lehenengo fasea bukatu da.

- Zarautzko Olaa eta Iñurritza regatak uholdeetatik babesteko eta ingurumena berreskurtzeko lanak hasten dira.

- Mallabiko Urtia industrialdeko saneamendu-biltodiari loturiko obrak egin dira.

- Hernaniko Lastaola zubiaren aurriak kentzeko premia obrak egin dira.

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde oso.

Bestalde, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Ur Agentziari dagokio, barne-

arroetako, zein erkidegoarteko arroak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Sailkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikustea eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen sailkapen-ebazpen egin eta larrialdietako planen eta ustiapen-arauen berri eman da. Halaber, bi larrialdietako plan lehen aldiz onartu dira, zehazki Urkulu eta Ibai-Eder presena.



Sabando ibaiaren ur-jauzia

